

Diploma Dual®



ACADEMICA
INTERNATIONAL
STUDIES



*Ikasleak erronka
berrietarako prestatzen*

Academica Corporation erakundeak batxilergoko tituluak nazioartean baliozkotzeko xedean sortutako eta garatutako programa ofiziala da **Diploma Dual®**, aukera ematen die ikasleei aldi berean bi titulazio lortzeko: norberaren herrialdekoa (Batxilergoa Espainian, Baccalauréat Frantzian, Goi mailako Bigarren Eskola Italian...) eta American High School Diploma.





Academica, ospe handiko erakundea



ACADEMICA
INTERNATIONAL
STUDIES

100.000tik gora ikaslerekin, 5.000 irakaslerekin eta 200 ikastetxerekin 10 estatu baino gehiagotan (Florida, Texas, Utah, Georgia, Nevada, Kalifornia...), **hezkuntza kudeatzeko erakunde estatubatuar handiena eta nagusia da** Charter Schools ikastetxeak (% 100ean kudeaketa pribatua duten ikastetxe publikoak dira, errendimendu handikoak) biltzen dituen Academia, Miamin (Florida) du egoitza nagusia.

Academicako ikastetxeek K16ra bitarte hartzen dute, eta beraz, ikasleak High Schoolen graduatzen dira Unibertsitateko aurreneko bi urteak jada eginda dauzkatenean.

Hezkuntza birtualean liderra den aldetik, Estatu Batuetan Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuen Online Hornitzaile pribatu gisa **(American Virtual Public School Provider)** onartutako erakunde urrietako bat da Academica, bere ikastetxeei eta eskatzen duten beste ikastetxe publiko zein pribatu estatubatuarrei ematen die zerbitzu.

Horri esker, ikasleei gai ezberdinen aurrean bultzada bat emateko eduki eta programa zirrargarri berriak ari da Academica Corporation une oro sortzen.


Academica Corporation erakundean, ikastetxearen eta unibertsitateko irakaskuntzaren arteko hurbilketa gisa ulertzen da online irakaskuntza.



*Academica,
liderra hezkuntza
birtualean*







Diploma Dual[®] programaren jatorria

Ikasleei beren garapenean eta prestakuntzan laguntzeko asmoz, barnean baina baita Estatu Batuetatik kanpo ere, Academica Corporation erakundeak hainbat herrialderekin tituluak baliozkotzeko programa ofiziala jarri zuen abian 2001. urtean eta Diploma Dual[®] ekarri zuen hark.

Gaur egun, beste 20tik gora herrialderen artean, Espainian, Portugalen, Frantzia, Italian, Argentinan, Kolonbian, Ekuadorren, Perun, Venezuelan, Mexikon, Txilen, Korean eta Txinan aplikatzen da Diploma Dual[®] programa.





Diploma Dual[®] Espainian



ACADEMICA
INTERNATIONAL
STUDIES

2009an, Academica Corporation-ek Espainia aukeratu zuen bere nazioartekotzeko oinarri gisa Academica Spain sortzearekin, berariazko langileak dituen egitura espezializatua.

Espainian, dagoeneko 1000etik gora ikastetxe baitaude programari atxikita, **soilik Academica markaren bidez** garatzen dugu **Diploma Dual[®]** programa.

“Diploma Dual[®], helmuga da bidea”

Academica Corporation erakundeak sortua eta garatua, diziplina arteko programa da Diploma Dual[®], gaitasun maila handienak lortzeko prestatzen ditu ikasleak, hiru helburu handi oinarritzat hartuta.

- 1 Hizkuntza murgilketa
- 2 Teknologia murgilketa
- 3 Murgilketa Pertsonala



1 Hizkuntza murgilketa

% 100ean ingelesez garatzen da programa, baina hizkuntza ikastetik askoz ere haratago egiten du. Ikasleek **ingelesez pentsatzen eta lan egiten dute**, eskola magistraletan parte hartzen dute eta egunero komunikatu daitezke bertako irakasleekin, Live Sessions direlakoetan parte hartzen dute beste ikaskideekin batean, eta azken buruan, ingelesez ari izaten dira modu autonomoan, beren buruarekiko konfiantza eta trebetasuna emendatuz.



I like the idea of “leaving” my small school in my small town and being part of something much bigger, and that expands the value of my studies.

4th Year of DBH



2 Teknologia murgilketa

Ikaskuntza digitalerako teknologia aurreratuenak behar bezala erabiltzen ikastea dakar teknologia murgilketak. Ikasleak zeregin aktiboa du, bere ikaskuntza erritmoa zehazten du, bere ezagutzen eraikuntzaren erantzulea da, eta bere prestakuntza prozesuaren protagonista. Pentsamendu kritikorako gaitasuna, ikertzeko trebetasunak eta informazioaren aurreko analisia garatzen ditu hezkuntza birtualak. Ikasleek era aktiboagoan eramaten dute burura beren ikasketa prozesua, irakaslearen eskolak jasotzeaz gain informazioa bilatuz, gogoeta eginez eta nola bakarka hala taldean egiten dituzten jardueren bidez ikasten baitute.




3 Murgilketa Pertsonala

Ikasleak **ardura eta heldutasuna** lortzen ditu lanean, autonomia maila handiarekin, denbora kudeatzen ikasten du, eta inguru desberdin eta kulturaniztunetara egokitze gaitasuna nahiz haietan lan egiteko malgutasuna bereganatzen ditu. Ikasitako eta aplikatutako balio horiexek dira ikasleek topatuko dituzten hasierako lorpen eta helburu xeheak lortzeko eta gainditzeko berme, geroago, Unibertsitate aldian, handiagoak izango baitira lorpenak eta helburuak.

Gehienetan ikusezina bada ere, nire ustez zera da onena gure lanean, ikasleei lagundu egiten diegula ikaragarriko potentziala dutela jakinarazten.

Global Student Services zerbitzuetako zuzendaria



Academia





WANTED

Students who want to be challenged



**AMERICAN
#HIGH
SCHOOL
DIPLOMA**

Language immersion

Self management mastery
and Leadership skills

Window to the world



WANTED

Students who want to be challenged



**AMERICAN
#HIGH
SCHOOL
DIPLOMA**

Language immersion

Self management mastery
and Leadership skills

Window to the world



WANTED

Students who want to be challenged



**AMERICAN
#HIGH
SCHOOL
DIPLOMA**

Language immersion

Self management mastery
and Leadership skills

Window to the world

Diploma Dual[®] programaren abantailetakoa bat da, ingeles maila nabarmen hobetzeaz gainera, ikasleei ematen dien autonomia eta teknologia berrien erabileran lortzen duten erraztasuna, unibertsitatean biziko duten prestakuntzaren aurrekari gisa.



Nazioartean onartutako titulazioa

Diploma Dual[®] **ezagutzen eta gaitasunen** arabera ebaluatzen dituelako ikasleak.

Kontzeptu horri jarraiki, American High School Diploma lortzeko, Diploma Dual[®] programan ari den ikasleak ez du irakasgai bat eta bera (matematikak, fisika, literatura...) birritan ikasi beharrik, ingelesez eta gaztelaniaz, baizik eta soilik herrialdeko ikasgai espezifikoak ikasi beharko ditu (hizkuntza, historia, kultura...), gainerako irakasgaiak baliozkotu egiten zaizkiolarik.



Ikasketak amaitzen dituztenean, **estatubatuar ikasleek lortzen duten titulazio berbera** lortzen dute Diploma Dual® programako ikasleek: American High School Diploma.



ACADEMICA
INTERNATIONAL
STUDIES





Academicaren eta bere erakundeen hezkuntza zerbitzuak **Estatu Batuetako estandar zorrotzenek egiaztatuta daude:** Floridako Estatuak eta bertako Hezkuntza Departamenduak, U. S. Department of Education-ek, National Blue Ribbon Schools-ek, AdvancED-ek eta Association of Colleges and Schools (SACS) elkarteak.

Irakasgaien baliozkotze mailarik handiena

Diploma Dual® programako
ikasleek 6 irakasgai baizik ez
dituzte gainditu behar amerikar
titulazioa lortzeko.



Academicak lortutako nazioarteko hitzarmenei eta programaren izaera hezitzaile bikainari esker –halaxe aitortzen baitute AEBetako hezkuntza erakunde nagusiek– ahal den baliozkotze mailarik handiena eskaintzen da: American High School Diploma lortu ahal izateko **24 kredituen % 75a**, alegia. Ikasle bakoitzak ikasi beharreko 6 irakasgaietatik 4 nahitaezko curriculumekoak izango dira, eta 2 hautazko curriculumekoak. Gainerako 18 irakasgaiak Espainian lortutako emaitza akademikoekin baliozkotuko dira.

Nahitaezko irakasgaiak

English: 2 kreditu*

U.S History: 1 kreditu

U.S Government+Economics: 1 kreditu

* Ikasleak nahitaez gainditu behar ditu bi ingeles maila, hasierako maila edozein duelarik ere:
English I-II, English II-III, English III-IV.

Hautazko batzuk

Life Management Skills: 1 kreditu*

College Preparation (SAT- ACT): 1 kreditu

Criminology: 1 kreditu

Psychology: 1 kreditu

Digital Photography: 1 kreditu

Concepts of Engineering

& Technology: 1 kreditu

English: 1 kreditu

* Nahitaezko hautazko irakasgaia



Hautazko irakasgaien artean daude Argazki Digitala, Kriminologia, eta SAT (Unibertsitatean sartzeko azterketa prestatzeko) bezalako gaiak. Europar curriculumean ez dauden **oso irakasgai interesgarriak dira**, motibatzeke plus bat ematen diote ikasleari, eta ingelesez landuko ez lituzkeen gaietan hiztegia aberasteko aukera ematen diote.

Gainera, Diploma Dual® programako ikasleek era aktiboan parte har dezakete Amerikako ikasleen bizimoduan, ikasleen klubetara bil daitezke, halakoetan aurkituko dituzte jakin-nahi eta kezka bertsuak (kazetaritza, argazkia, arteak...) dauzkaten beste lagun batzuk.





Salamanca

“I love digital photography. Now I am learning useful things that make me feel happy”

1st Year of Bachillerato



Barcelona

“I choose Criminology because I like TV crime series. Maybe one day I’ll write one ;)”

1st Year of Bachillerato



Córdoba

“If life is a great trip, you better study Tourism”

4th Year of ESO





Ikasketa programa

DBHko 2., DBHko 3., DBHko4. eta Batxilergoko 1. mailan has daiteke Diploma Dual® programa. Zenbat eta lehenago hasi hobe, ikasleak irakasgaiak epe luzeago batean banatu ahal izango baititu eta arinagoa izango baita Batxilergoan zehar ikasi beharrekoaren karga. Eta aldi berean, ikasleak lanaren aurrean bere erantzukizuna eta heldutasuna lehenbailehen garatzea ahalbidetzen du.

Diploma Dual® programa DBHko 4. mailan edo Batxilergoko 1. mailan hasten duten ikasleek aukera izango dute programaren azken urtea iritsi baino lehen Summer Schoolen sarrera izateko, ikasi beharrekoaren karga arintzeko xedean.





Ikasketa programa



Summer School

Konpromisoaren balioa

Academica International Studies erakundeak, soilik Batxilergoko 2. mailara iristean bi edo hiru kreditu egin behar dituzten ikasleei, aukera ematen die udan zehar Batxilergoko 1. mailatik 2. mailara igarotzeko azken ikasturteko hautazko irakasgaia.

Ikasle horiek Batxilergoko lehen mailara arte beraien ikastetxeetan irakasgai guztiak gaindituta eduki behar dituzte eta A eta/edo B kalifikazioak eduki behar dituzte ordura arte ikasitako irakasgai estatubatuarretan.

Aipatzeko da Diploma Dual[®] programako aukera hori Batxilergoko bigarren mailara osagarriak diren beste jardueretan interesa, heldutasuna eta konpromisoa erakutsiz berriro ere.

- 4 Year Program - 2nd Year of DBH

2nd Year of DBH: English

3rd Year of DBH: English & Life Management Skills

4th Year of DBH: U.S. History & Elective

1st Year of Batxilergoa: U.S. Government+Economics

DBHko 2. mailaren kasuan, programan parte hartu ahal izango dute beren ingeles mailagatik, heldutasunagatik eta interesagatik ikastegiak izena emateko gomendatzen dituztenek.

- 4 Year Program - 3rd Year of DBH

3rd Year of DBH: English & Life Management Skills

4th Year of DBH: English & U.S History

1st Year of Batxilergoa: U.S Government/Economics + Elective

2nd Year of Batxilergoa: Elective →

3 years

DBHko 3. mailan hasita, ikaslea 3 urteko formatuan matrikulatu daiteke, programa lehenengo Batxilergoan amaituko zuen horrela.



- 3 Year Program - 4th Year of DBH

4th Year of DBH: English & Life Management Skills

1st Year of Batxilergoa: English & U.S History

2nd Year of Batxilergoa: U.S Government/Economics & Elective*

- 2 Year Program - 1st Year of Batxilergoa

1st Year of Batxilergoa: English, U.S History & Life Management Skills
(nahitaezko hautazkoa)

2nd Year of Batxilergoa: English, U.S Government/Economics & Elective*

*Summer School



Programan onartzea eta lehen urratsak

Honako urrats hauek egin behar ditu ikasleak Diploma Dual® programan parte hartzeko:



1. Onartua izateko eskaera orria aurkeztuko du behar bezala beteta.



2. Sarrera proba egingo du.



3. Hautatutakoei jakinaraziko zaie.



4. Erabiltzailea eta pasahitza emango zaizkio.



5. Lehen harremana izango du Estatu Batuetako irakaslearekin.



6. Ongi etorria emateko elkarrizketa egingo da.



7. Ikasturtea hasi eta egingo da.



Diploma Dual[®] programari buruzko gida azkarra

1 Zer eskaintzen du Diploma Dual[®] programak?

Aldi berean bi titulazio lortzeko aukera eskaintzen du Diploma Dual[®] programak: Ikaslearen jaioterriko batxilergoa, aurrez aurre, eta American High School Diploma, online.

2 Estatu Batuetan dago matrikulatuta ikaslea?

Bai. Behin eskaera onartuta, Academicako beste estatubatuar baten moduan egongo da matrikulatuta ikaslea American High School Diploma programan.

3 Sartzeko zer nota eskatzen zaio ikasleari?

Batez bestekoa 7 izatea gomendatu ohi bada ere, ez dago gutxieneko notarik.

Programan parte hartu ahal izateko, ikasitako eta gainditutako irakasgaiak aintzat hartzen dira eta ingelesaren maila neurtzeko ebaluazio bat egiten da.

4 Zer ikasturtetan has daiteke Diploma Dual[®] programan?

DBHko 2., 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. mailan.



5 Zein ahalegin maila eskatzen zaio ikasleari?

Eskolaz kanpoko beste jarduera baten mailakoa. Hau da, astean 3 eta 5 ordu bitarte, betiere ikasleak duen hasierako ingeles mailaren eta programa hasten duen hezkuntza mailaren arabera.

6 Guztira zenbat irakasgai ikasi beharko ditu?

Espainiar ikasle batek 6 kreditu baizik ez ditu lortu beharko (4 nahitaezko irakasgaietan eta 2 hautazkoetan). Academica Corporation erakundearen Diploma Dual[®] programaren bikaintasunak aukera ematen du Academicari American High School Diploma lortzeko exijitzen diren kredituen % 75 baliozkotzeko.

7 Zer abantaila ematen dizkio Diploma Dual[®] programak ikasleari?

Diziplina artekoa da Diploma Dual[®] programa, hezkuntza murgilketa sustatzen du ingelesez, baita teknologiaren alorreko gaitasuna eta ikaslearen garapen pertsonala ere.

Diploma Dual[®] curriculumeko programak ikasleek iristeko modurik izango ez lituzketen edukiak eskaintzen ditu, ikasleen aberastasun pertsonalaren eta akademikoaren osagarri. Elkarte sozialetara (kazetariak, artistak, argazkilariak...) biltzeko aukerak jakin-nahi eta kezka bertsuak dauzkaten beste ikasleekin harremanak izatea ahalbidetzen die ikasleei.

Bestalde, Batxilergoko titulazio bikoitza eginik, agerian geratzen da ikaslea trebea dela eta diziplina handikoa, eta titulazio bikoitzari aurre egiteko erronkari erantzuteko gai dela; nolakotasun horiek dauzkatenei ate asko irekitzen dizkiete laneko merkatuan.



8 Zer material behar ditu ikasleak?

Internetekin konektatutako ordenagailu bat. Komenigarria da entzungailu batzuk eta mikrofonoa edukitzea. Academicak beharreko guztiak jarriko ditu edukien eta jardueren plataformetan sarrera izateko eta irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioa ahalbidetzeko.

9 Zer kalitate berme eskaintzen du Diploma Dual[®] programak?

Erabatekoa, programa hau egiten duten ikasleek ikasle estatubatuarrek lortzen duten titulazio bera jasotzen baitute, eta titulazio hori baliozkoa baita iparramerikar estatu eta unibertsitate guztietan.

10 Besterik galdetu nahi al duzu?

Ulertzen dugu batzuetan errazagoa dela aurrez aurre mintzatzea. Mesedez, ez egin dudarik, jar zaitez zuzenean gurekin harremanetan. Edo Diploma Dual[®] programako zuzendariarekin, Espainian 1000etik gora baitira programari atxikitako ikastetxeak; egin dezakezun edozein galderari erantzungo dio, eta ikastetxe bakoitzean antolatzen den hitzaldi berriemaileren batera hurbiltzeko gonbita egingo dizu.



Ikasleen komunitate handia

Diploma Dual[®] programan, urtero, 30.000tik gora ikaslek ematen dute izena, eta milaka graduatzen dira.



Diploma Dual[®]

*Ikasleak erronka
berrietarako prestatzen*

www.academica.school | info@academica.school



ACADEMICA
INTERNATIONAL
STUDIES